

# UPV/EHU-KO IKASLEEN V. BILTZARRA

## NIRE GRADU AMAIERAKO LANAK (GrAL) MUNDUA ALDATZEKO BALIO DU 2022

---

### Gradu Amaierako Lanaren Izenburua (GrAL)

Garapen Iraunkorreko Helburuen (GIH) aplikazioa GK Recycling klusterreko enpresa batean

### Egilea

Leire Jauregui Soraluze

### Gradua

Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza

### Zein Ekarpen egiten die GIHei (Garapen Iraunkorreko Helburuei)

- 11. Hiri eta komunitate jasangarriak,
- 12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak

### Laburpena

Ikerketa lan honetan, GIHen aplikazioa egiten da GK Recycling-eko klusterreko enpresa batean. Horrela, lanaren zati teorikoan ekonomia zirkularra eta garapen jasangarriarekin lotutako kontzeptuetan sakontzen da. Ondoren, zati enpirikoan, SDG Compass13 metodologia erabiliz, bost pasusutan banatutako gida bat erabiliz, Campezo Obras y Servicios S.A.-n GIHen aplikazioa egiten da. Amaitzeko ikerketa honetatik ateratako ondorioak eta etorkizuneko lerroak azaltzen dira.

### 2030 Agendaren GIH Ekarpenak

Lanaren helburua Garapen Iraunkorreko Helburuak enpresa batean aplikatzea da. Izan ere, nahiz eta Espainian ETEak %99a baino gehiago izan, konturatu gara jasangarritasunaren inguruko informazioa oso urria dela. Horregatik, enpresei GIHak gerturatzea garrantzitsua iruditzen zaigu, ondoren enpresek ahal duten neurrian helburu hauei ekarpenak egin ahal izateko.